

1- Gatazka bat konpontzeko lehen urratsa da:

- a) Bizitzen ari den gatazka mugatzea eta formulatzea.
- b) Arazoa definitzea.
- c) Egon badagoela onartzea.
- d) Alternatibak planteatzea

2- Zer da gatazka bat?

- a) Zerbait negatiboa, konpondu behar duguna.
- b) Zerbait positiboa, hobetzeko aukerak eskaintzen dizkiguna.
- c) Konpondu behar dugun zerbait.
- d) Erantzun guztiak okerrak dira.

3- Gatazkek konpontzeko tekniken artean, zeinetan du indar gehien gatazkatik kanpoko hirugarren pertsona baten esku-hartzeak?

- a) Arbitrajean.
- b) Bitartekaritzan.
- c) Kontziliazioan.
- d) Erantzun guztiak okerrak dira

4- Piktograma honek hau esan nahi du:

- a) Sukoia.
- b) Erregarria
- c) Ingurumenerako arriskutsua.
- d) Kaltegarria



5- Garbiketa-produktu bat ematen digutenean eta etiketan seinale hau identifikatzen dugunean, zer esan nahi du seinale horrek?

- a) Produktua korrosiboa dela.
- b) Produktua toxikoa dela, oso toxikoa.
- c) Produktua sukoia dela.
- d) Produktua kaltegarria edo narritagarria dela.



6- Zer esan nahi du garbitzeko eta desinfektatzeko produktu batzuetan agertzen den piktograma honek?

- a) Produktua toxikoa dela.
- b) Produktua korrosiboa dela.
- c) Produktua narritagarria dela.
- Produktua kaltegarria dela.



7- Gure lantokian edo erabiltzen dugun makinerian, hori koloreko seinaleak edo eranskailuak aurkitzen baditugu, honako hau esan nahi dute:

- a) Zerbait betetzera behartzen gaituzte.
- b) Zerbait egitea debekatzen digute.
- c) Arriskuren baten berri ematen digute.
- d) Zer tokitan gauden adierazten digute.

8- Zeri aplikatzen zaio piktograma hau?

- a) Inhalatzearen, irenstearen edo larruazalean sartzearen ondorioz osasunerako larritasun mugatuko arriskuak ekar ditzaketen substantziei eta prestakinei aplikatzen zaie.
- b) Ingurumenean berehalako arriskuak edo arrisku geroratuak dituzten edo izan ditzaketen substantzia eta prestakinei aplikatzen zaie.
- c) Inhalatzearen, irenstearen edo larruazala sartzearen ondorioz arrisku grabeak, akutuak edo kronikoak edo heriotza eragin ditzaketen substantzia eta prestakinei aplikatzen zaie (prestakinak eta substantzia oso toxikoak barne).
- d) 21 gradu zentigradutik gorako eta 55 gradu zentigradutik beherako sugar-puntua duten substantzia eta prestakin likidoak aplikatzen zaie.



9- Piktograma zuriak erabiltzen dira hondo berdearen gainean, honetarako:

- a) Suteen aurkako ekipoei buruzko seinaleetarako.
- b) Salbamendu- eta sorospen-seinaleetarako.
- c) Ohartarazpen-seinaleetarako.
- d) Obligazio-seinaleetarako.

10- Nola esaten zaio hondakinak bildu, sailkatu, multzokatu edo garraiatzeko prestatzeari?

- a) Bilketa selektiboa.
- b) Bilketa
- c) Biltegiaketa.
- d) Hondakin-kudeaketa

11- Birziklatzen diren hondakinak hauek dira:

- a) Papera eta kartoia
- b) Beira
- c) Infekziosoak
- d) Erantzun zuzenak a) eta b) dira

12- Zertzat joko dira desinfekzio-produktuen ontziak?

- a) Industria-prozesuen hondakintzat.
- b) Hiri-hondakintzat.
- c) Udal-hondakintzat.
- d) Hondakin arriskutsutzat.

13- Zer jarraibide bete behar dituzte hondakinak manipulatzeko langileek?

- a) Eskularruak erabili behar dira zaborra kentzeko.
- b) Ez da zaborrik botako poltsa batetik bestera.
- c) Poltsak ez dira lurretik arrastatuko.
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

- 14- Zein edukiontzitan utzi behar ditugu poliespaneazko erretiluak?
- a) Errefuxan.
 - b) Horian-ontziak.
 - c) Urdinean-papera, kartoia.
 - d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.
- 15- Eta aluminiozko papera?
- a) Errefuxan.
 - b) Horian-ontziak.
 - c) Urdinean-papera, kartoia.
 - d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira
- 16- Zein edukiontzitan utziko dugu zeramikazko baxera?
- a) Edukiontzi horian-ontziak.
 - b) Edukiontzi berdean-errefuxa.
 - c) Edukiontzi urdinean-papera, kartoia.
 - d) Iglu-edukiontzian, beira.
- 17- Nola esaten zaio hondakinak ezabatu aurretik lurrazalean edo lurpean uzteko instalazioari?
- a) Lurzoru kutsatua.
 - b) Transferentzia-estazioa.
 - c) Zabortegia.
 - d) Biltegiatzea.
- 18- Laneko arriskuen prebentziorako planari dagokionez, adierazi zein den erantzun zuzena:
- a) Enpresen esku egongo da plana martxan jartzea ala ez, betiere langile kopurua eta jardueren izaera eta arriskugarritasuna kontuan hartuta.
 - b) Planak honako hauek jaso behar ditu: antolamendu-egitura, erantzukizunak, funtzioak, praktikak, prozedurak, prozesuak eta beharrezko baliabideak.
 - c) Laneko arriskuen ebaluazioa eta prebentzio-jardueraren plangintza ez dira funtsezko tresnak arriskuen prebentziorako plana kudeatzeko eta aplikatzeko.
 - d) Erantzun guztiak zuzenak dira.
- 19- Langileek prebentzioaren arloan dituzten betebeharrei dagokienez, adierazi erantzun okerra:
- a) Langileak behar bezala erabili behar ditu bere jarduera garatzeko erabiltzen dituen makinak, aparatuak eta erremintak.
 - b) Langileak behar bezala erabili behar ditu enpresak emandako babes-baliabideak eta -ekipoak.
 - c) Salbuespen gisa, langileak funtzionamendutik kanpo utzi ahal izango ditu dauden segurtasun-gailuak.
 - d) Aukera guztiak okerrak dira.
- 20- Adierazi betebeharrak hauek zein ez dagozkion langileari:
- a) Segurtasun-gailuak funtzionamendutik kanpo ez jartzea
 - b) Bere jarduera garatzeko bitartekoak behar bezala erabiltzea.
 - c) Osasunaren zaintza.
 - d) Aukera guztiak zuzenak dira.

- 21- Laneko arriskuen prebentzioa espezialitate hauetan banatzen da:
- a) Higienea, segurtasuna, laneko medikuntza, ergonomia eta psikosoziologia.
 - b) Eraikuntza, industria, merkataritza eta ostalaritza.
 - c) Medikuntza orokorra, espezializatua eta lanekoa.
 - d) a) erantzuna gehi osasun-azterketak.
- 22- Langileei dagokienez, arriskuen prebentzioaren arloan honako arau hau bete behar da:
- a) Arduradunekin eta enpresaburuekin ez eztabaidatzea gauzatu beharreko prebentzio-neurriak.
 - b) Norbera babesteko ekipamenduak edukitzea, edozein dela ere ekipamendu horien jatorria.
 - c) Erakundeko langile guztien parte-hartzea eta informazioa, bai eta langile horiei kontsulta egiteko eskubidea ere, ezarritako kudeaketa-sistemaren etengabeko hobekuntza lortzeko.
 - d) Arlo horretako ikastaroen ordutegia ituntzea.
- 23- Hauek dira, besteak beste, garbiketa-jardueraren arrisku ohikoenak:
- a) Kolpeak hartzeko arriskua.
 - b) Irristadak eta harrapatzeak.
 - c) Gehiegizko esfortzuak.
 - d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira
- 24- Zer faktorek eragiten dute karga fisikoan?
- a) Esfortzu fisikoak
 - b) Jarrera okerrak
 - c) Karga astunak eskuz manipulatzeko.
 - d) Guztiak dira zuzenak
- 25- Nola egin behar da garbiketa-lanerako plan bat?
- a) Lan-plana prestatzeko, higiezinaren aurretiazko azterketatik jasotako informazioa hartuko da erreferentziazat.
 - b) Langileek egiten dute lan-plana eraikinaren eremu guztietan.
 - c) Lan-plana alkateak zehazten du.
 - d) Ez da beharrezkoa garbiketa-lanerako plan bat.
- 26- Ekipo informatiko bat garbitzean, zer hartu behar da kontuan?
- a) Kanpoaldea eta barrualdea detergentez bustitako baieta batez garbituko dira.
 - b) Pantaila produktu antiestatikoekin garbituko da.
 - c) Ekipoa itzalita egotea.
 - d) b) eta c) erantzunak zuzenak dira.
- 27- Zer hartu behar da kontuan informatika-ekipoetako teklatuak garbitzeko?
- a) Konektatuta egotea.
 - b) Teklatuak leunki astinduz garbituko dira, eta, ondoren, kanpoko aldea detergente azidozko disoluzioan bustitako baieta batekin garbituko dira. Ondoren, lehortu egin beharko dira.
 - c) Ordenagailuak ez dira inola ere busti behar, ura barruan sar baitaiteke, eta kalte konpoezinak eragin.
 - d) Disketeetako artekak, sarbideak eta material horien barrualdea ere garbiketako langileen lanaren parte dira.

- 28- Zer erabiliko dugu kristalak garbitzeko?
- a) Kristalak garbitzeko produktua
 - b) Arrastelua, ura eta detergente neutroa.
 - c) Ura eta kristal-garbitzailea.
 - d) Zikinkeraren arabera.
- 29- ¿Nola garbitu behar da komunontziaren barrualdea?
- a) Komunontzia eskuila batekin igurtzi behar da, garbitzaile indartsu bat erabiliz.
 - b) Arreta berezia jarriko zaio herdoil-deposituak egoteari.
 - c) Aparatu sanitarioetan geratzen diren orban horixketan arreta jarritz.
 - d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira
- 30- Nola egiten da lehen garbiketa lantokia desinfektatu eta gero?
- a) Lixibarekin edo beste desinfektatzaile bateragarri batekin.
 - b) Ohiko produktuekin, ez da beharrezkoa desinfektatzea.
 - c) Ura giro-tenperaturan egon behar da, intoxikazioak saihesteko.
 - d) Aurreko hiruretako edozeinekin
- 31- Altzariak garbitzean:
- a) Garbitzeko, altzari garbigarriak eta garbitu ezinak bereizi behar dira.
 - b) Detergente neutroarekin egingo da beti.
 - c) Hautsa hartzeko produktua bakarrik aplikatuko da.
 - d) b) eta c) erantzunak zuzenak dira.
- 32- Zein da garbiketako oinarrizko agentea?
- a) Lixiba.
 - b) Detergentea.
 - c) Agoarrasa.
 - d) Amoniakoa.
- 33- Kristaletako zikinkeria kentzeko orduan, kontuan izan behar da zikinkeria honela garbituko dela:
- a) Behetik gora.
 - b) Goitik behera.
 - c) Horizontalki.
 - d) Bertikalki.
- 34- Zer garbiketa-produktuekin garbitzen dira mahaia, apalategiak eta armairu sintetikoak bulego batean?
- a) Ura eta xaboiarekin, detergente neutrozko disoluzio batean bustitako mikrofibra baieta batez igurtziz.
 - b) Lixiba
 - c) Amoniakoa
 - d) Salfumana.

- 35- Zer garbiketa-osagarri behar dira biltegietarako?
- a) Birziklatzeko zakarrontzia, bai kanpoaldean, bai barrualdean.
 - b) Garbiketa-orga arinak, erraz maneiatzekoak, garbitu beharreko espazioaren beharretara egokituak.
 - c) Kubo bustitzaileak, beira-garbitzaileak edo arraska-hortzak, kristalak garbitzeko.
 - d) a), b) eta c) erantzunak zuzenak dira.
- 36- Baieta ekologikoa:
- a) Inolako produkturik gabe erabil daiteke.
 - b) Ez dago horrelako baietarik.
 - c) Itsatsitako zikinkeria igurtzi eta harraskatzeko erabiltzen da.
 - d) Bat ere ez da zuzena
- 37- Gainazal batetik koipe-orban bat kendu behar dugu. Zer detergente mota erabiliko dugu?
- a) Detergente azidoa.
 - b) Detergente neutroa.
 - c) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
 - d) Detergente alkalinoa.
- 38- Nola garbitzen dira ekipo informatikoak eta fotokopiagailuak?
- a) Ekipo informatikoak eta fotokopiagailuak zuzenean lainoztatuko ditugu, guztiek garbiketa-teknika bera behar baitute.
 - b) Mikrofibrazko baieta batekin garbituko ditugu, uretan eta detergente neutroko disoluzio batean bustita.
 - c) Ordenagailuen kasuan, inoiz ez dira erabili behar garbiketa-produktu erasokorrak, haien pantaila kaltetu dezaketen produktu kimikoak baitituzte.
 - d) b) eta c) erantzunak zuzenak dira.
- 39- Aukera hauetatik, adierazi zein den garbiketa-tresna bat:
- a) Esponja berdeak.
 - b) Presiozko garbigailuak.
 - c) Garbitzeko makinak.
 - d) Xurgagailuak.
- 40- Zer garbiketa-tresna erabiltzen da egunero manipulazioa eta larruazala babesteko?
- a) Isipuak.
 - b) Eskularruak
 - c) Oihalaren astintzailea.
 - d) Trapeatzaile osoa.
- 41- Zer da kristalak garbitzea?
- a) Obra-amaierako garbiketa.
 - b) Aldizkako garbiketa.
 - c) Garbiketa berezia.
 - d) Desinfekzio-garbiketa.

42- Germen esporulatuak oso mikroorganismo zailak dira ezabatzeko, oso erresistenteak direlako honekiko:

- a) Temperatura altuekiko.
- b) Zero azpiko temperaturekiko.
- c) Airean daude.
- d) Guztiak dira zuzenak

43- Zein da lixibari buruzko baieztapen zuzena?

- a) Korrosiboa eta toxikoa da, eta ez da beste produktu batzuekin nahastu behar.
- b) Fabrikatzen denetik bi hilabetera, eraginkortasuna galtzen du.
- c) Detergente neutroarekin garbitu ondoren erabili behar da beti.
- d) Guztiak dira zuzenak

44- Zer ezaugarri ditu amoniakoak?

- a) Ezin da sodio-hipokloritoarekin nahastu, gas narritagarri eta oso toxikoa sortuz erreakzionatuko lukeelako.
- b) Ez du inolaz ere narritadurarik sortzen larruazalean.
- c) Distira emateko soilik erabiltzen da.
- d) Produktu neutroa da.

45- Erratza egoera ezin hobean mantentzeko:

- a) Astean behin garbituko da ur beroarekin eta agoarrasarekin, eta ur askorekin urberrituko da. Lehortzen utziko da, zuntzak beherantz mantenduz.
- b) Astean behin garbituko da ur beroarekin eta detergente neutroarekin, eta ur askorekin urberrituko da. Lehortzen utziko da, zuntzak gorantz mantenduz.
- c) Hilean behin garbituko da ur beroarekin eta detergente neutroarekin, eta ur askorekin urberrituko da. Lehortzen utziko da, zuntzak gorantz mantenduz.
- d) Astean behin garbituko da ur beroarekin eta detergente neutroarekin, eta ur askorekin urberrituko da. Lehortzen utziko da, zuntzak beherantz mantenduz

46- Zein da aukera okerra barruko xaflazko pertsianak garbitzeko?

- a) Eskuila berezi batekin, hautsa xaflaren bi aldeetatik kentzeko.
- b) Detergente amoniakatua duen ura erabiliz.
- c) Goitik behera garbitu behar dira.
- d) Argizari likidoz bustitako trapu batekin

47- Zer detergente mota erabiliko genuke obra baten ondoren azulejuetan geratzen diren zementu-hondarrak kentzeko?

- a) Detergente gogor alkalino bat.
- b) Detergente azido sendoa.
- c) Amoniakorik gabeko lixiba.
- d) Ura.

48- Zein da azalera handi bat eskobatzeko biderik egokiena?

- a) Erratza eta pala
- b) Ekortzeko makina mekanikoa.
- c) Baldekatzeko makina.
- d) Xurgagailua

- 49- Goroldio labainkorra duten eskailerak honela garbitzen dira:
- a) Kardarekin.
 - b) Gatzarekin.
 - c) Presiozko urarekin.
 - d) Lixibarekin.
- 50- Pala, lanbasa edo antzeko baten heldulekua hausten bazaigu
- a) Ezin da aldatu.
 - b) Apurtutako bi zatien arteko lotura eginez konpondu behar da.
 - c) Heldulekua soilik aldatzen da.
 - d) Aldatu egin behar da eta heldulekua soldatu
- 51- Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren II. tituluaren arabera, hauetako zein ez da datuak babesteko printzipio bat?
- a) Datuen zehaztasuna.
 - b) Adin nagusikoen baimena.
 - c) Konfidentzialtasun-betebeharra.
 - d) Adingabeen baimena
- 52- Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legearen xedea da:
- a) Baldintzak sustatzea Nafarroako Foru Komunitatean emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eskubide konstituzionala benetakoa eta eraginkorra izan dadin bizitzako eremu eta etapa guztietan.
 - b) Nafarroako Foru Komunitatean emakumeen eta gizonen arteko eta LGTBI+ pertsonen arteko berdintasuna bizitzako eremu eta etapa guztietan benetakoa eta eraginkorra izan dadin baldintzak bultzatzea.
 - c) Nafarroako Foru Komunitatean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea, arlo publikoan eta sozialean benetakoa eta eraginkorra izan dadin.
 - d) Beharrezko baldintzak ezartzea Nafarroako Foru Komunitatean emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako foru eskubidea benetakoa eta eraginkorra izan dadin bizitzako eremu eta etapa guztietan.
- 53- Zein da 13/1982 Lege Organikoaren helburu nagusia?
- a) Konstituzioa aldatzea.
 - b) Nafarroako foru erakundeak demokratikoki antolatzea.
 - c) Autonomia-erkidego berri bat sortzea
 - d) Zerga-araubide berria ezartzea



54- Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onartzen duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 26. artikulua arabera, funtzionarioen interes partikularragatik borondatezko eszedentzia honela ematen da:

- a) Gehienez 18 hilabetez.
- b) Gehienez ere hiru urtez.
- c) Denbora mugarik gabe.
- d) Gehienez urtebeterako.

55- Udalerriaren definizioa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen arabera:

- a) Estatuaren lurralde-antolaketa oinarritzko toki-erakundea.
- b) Nortasun juridiko propioa duen toki-erakundea, auzo-elkarteak eta lurralde-banaketa zehaztua, Estatuaren jarduerak betetzeko.
- c) Administrazio-unitatea, tokikoa, udalaz azpikoa.
- d) Gaitasun juridiko osoa duen toki-erakundea, eskumen propioen edo eskuordetuen bidez hirugarrenen aurrean jarduteko beharrezko gaitasuna duena.

56- 6/1190 Foru Legearen arabera, zein nortasun-mota du udalerriak?

- a) Juridikoa.
- b) Osoa.
- c) Erantzun guztiak okerrak dira.
- d) Bi erantzunak zuzenak dira.

57- 6/1190 Foru Legearen arabera, elementu hauetako zein ez da udalerrikoa?

- a) Lurraldea.
- b) Biztanleria.
- c) Antolaketa.
- d) Mankomunitatea

58- 7/1985 Legearen arabera, Olaztin egingo da ohiko osoko bilkura, gutxienez:

- a) Hilero.
- b) Hiru hilean behin.
- c) Urtean behin.
- d) Sei hilean behin

59- 17/2019 Foru Legearen arabera, zein da berdintasun substantiboa?

- a) Prozesuak antolatzea, hobetzea, garatzea eta ebaluatzea, genero-berdintasunaren ikuspegia etapa guztietan eta maila guztietan txertatzeko, berdintasuna lortzeko.
- b) Bizitzaren prozesua berdintasunean ulertzen duen paradigma, baliabide materialen zein testuinguru eta harremanen beharrak kontuan hartuta.
- c) Oinarritzko giza eskubideak eta askatasunak aitortzeko, gozatzeko edo bete-betean baliatzeko tratua eta aukera berberak izatea.
- d) Autonomia eta parte-hartzea sustatzea, justizia sozialerantz aurrera egiteko eta berdintasuna lortzeko estrategia gisa.

60- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren arabera, zein da hutsegite arina?

- a) Hamabi puntualtasun-falta baino gehiago, hilabete berean, justifikatutako arrazoirik gabe.
- b) Agintariak, nagusiak, lankideak, mendekoak eta administratuak behar bezala ez tratatzea.
- c) Hierarkian gorago daudenek zerbitzuari dagozkion gaietan idatziz emandako aginduak ez betetzea.
- d) Legez kanpoko grebetan parte hartzea.

61- Zeintzuk dira Olaztegi herriko jaiak?

- a) San Juan
- b) San Francisco Javier
- c) San Migel
- d) Santa Ana.

62- Zein kaletan kokaturik dagoen Erburua kiroldegia?

- a) Inguraketa
- b) Urbasako etorbidea
- c) Arkinorruti poligonoa
- d) Nagusia

63- Zein kaletan dago udal pilotalekua?

- a) Pilotalekupe
- b) San Francisco Javier
- c) Sancti Espiritu
- d) Nagusia

64- Kultur Etxea zein kaletan ala plazan kokatzen den?

- a) Orreaga kalean
- b) Sarasate plazan
- c) San Migel plazan
- d) San Ignacio kalean

65- Zein kaletan dago udal-biltegia?

- a) Kamiogaina
- b) Tailerrak
- c) Iturritxo
- d) Inguraketa

66- Zein kaletan ala plazan dago Udaletxea?

- a) Kale Goienkale
- b) Maiatzaren 2ko plaza
- c) García Ximénez plaza
- d) Kale Nagusia



67- Zein kaletan daude udal igerilekuak?

- a) Urbasa etorbidea
- b) Nagusia
- c) Inguraketa
- d) Iturritxo

68- Zein da Olaztiko posta-kodea?

- a) 31810
- b) 31615
- c) 31809
- d) 31714

69- Zer udalerri edo herri mugakide ditu Olaztik?

- a) Altsasu eta Ziordia
- b) Ziordia, Zudaire eta Urdiain
- c) Altsasu eta Urdiain
- d) Ziordia, Zegama eta Altsasu

70- Zein hilabetetan ospatzen da Batueko festa?

- a) Maiatzean
- b) Ekainean
- c) Uztailan
- d) Abuztuan

Ordezko galderak:

1- Zer funtzio dituzte garbitzaileek?

- a) Zoruak, altzariak eta kristalak garbitzea. Eskobatzeta, garbitzea, hautsa kentzea, besteak beste, paperontziak hustea edo hondakinak ezabatzea, materialak birjartzea, hala nola komuneko papera edo ahozapiak.
- b) Materialak birjartzea, hala nola komuneko papera edo ahozapiak, ordenagailuak desmuntatzea hautsa ateratzeko.
- c) Zoruak, altzariak eta kristalak garbitzea, eskobatzeta eta garbitzea, hautsa kentzea, bulegarien mahaiak ordenatzea eta tresna elektrikoak itzaltzea.
- d) Eskobatzeta, garbitzea, hautsa kentzea eta kaxoietan gordetzea mahai gainean dagoen guztia

2- Nolakoa izan behar du garbiketako langileen jantziak?

- a) Langileentzako jantzi praktikoak, lan-arriskuen aukerak mugatzeko abantaila garrantzitsuak dituztenak.
- b) Eraikinen barruan daudenean, ondo ikusteko moduko jantziak.
- c) Ahalik eta politena, langileek irudi ona izan dezaten.
- d) Arropa ez da garrantzitsua.

3- Garbiketako langileen eginkizunen artean daude:

- a) Eraikina desinfektatzea, garbitzea eta ordenatzea.
- b) Desinfekzioa, garbiketa, eraikinaren eta altzarien ordena, nahiz eta lan-elementuen antolamendua aldatu behar den.
- c) Eraikinaren eta altzarien desinfekzioa, garbiketa eta ordena, baina ez da aldatu behar lan-elementuen antolamendua.
- d) Bat ere ez da zuzena.

4- 13/1982 Lege Organikoaren arabera, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldea bere merindade historikoetan sartzen diren udalerriek osatzen dute:

- a) Iruñea, Lizarra, Tuter, Zangoza eta Erriberri.
- b) Iruñea, Tuter, Zangoza eta Nafarroako Erribera.
- c) Iruñea, Baztan, Tuter, Erriberri eta Lizarra.
- d) Iruñea, Tafalla, Zangoza, Erdialdea eta Pirinioak.

5- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren arabera, ez da ordainsari osagarria:

- a) Arrisku bereziko osagarria.
- b) Lanaldia luzatzeagatiko osagarria.
- c) Zuzendaritza-postuaren osagarria.
- d) Guardiaren osagarria.

6- Hauetako zein ez da udalaren jabetzakoa?

- a) Ludoteka
- b) Mediku-kontsultategia
- c) Kamioien aparkalekua
- d) Parrokia-etxea

7- Zein jaiegunetan egiten da Artisautza Azoka?

- a) Santa Ana
- b) San Migel
- c) Santa Ageda
- d) San Sebastián

Olaztiko Udalaren zerbitzupeko funtzionario- erregimenean, udal- eta herri-eraikinetako garbiketa-langile lanpostu bat lehiaketa-oposizio bidez betetzeko.

- Egin zirkulu bat zuzentzat jotzen duzun erantzunari azterketa orrian.
- Erantzun zuenak 1 puntu balio du.
- Erantzun oker bakoitza - 0,25 puntu zigortzen du.
- Azterketa-denbora: 1 ordu eta 30 minutu.